



Enpresa-estrategian hizkuntza-  
gestiorik egokiena lortzeko Azpeitiko  
Udalak Euskara Patronatuaren baitan  
sortu duen azpiegitura teknikoa.



*Centro Técnico para optimizar la  
gestión lingüística puesto en marcha  
por el Ayuntamiento de Azpeitia, a  
través del Patronato de Euskera.*



# ELEGUNE



## Azpeitiko enpresak indartuz



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



Azpeitiko Udala



**ELEGUNE**

Azpeitiko Euskara Patronatua  
Perdillegi, 1 • Tfnoa.: 943 81 45 18  
e-mail: [elegune@erabili.com](mailto:elegune@erabili.com)  
[www.erabili.com/elegune](http://www.erabili.com/elegune)



enpresen  
hizkuntza-gestiorako  
gune teknikoa  
centro de optimización  
de la gestión lingüística  
en las empresas





Azpeitiko Udala



## Zer da Elegune?

**Azpeitiko Udalak, Euskara Patronatuaren bitartez, herriko enpresei hizkuntza-gestiorik egokiena lortzen laguntzeko sortu duen gune teknikoa.**

**Elegune:** Centro Técnico para optimizar la gestión lingüística de las empresas.



<b>Zer da hizkuntzen gestioa?</b>	<b>Zein da hizkuntza-gestiorik egokiena?</b>	<b>Nola gidatu behar da hizkuntza-gestioa?</b>
<p>Eleaniztuna da enpresaren oraina eta geroa. Enpresek hizkuntza bat, bi, hiru eta gehiago ere erabiltzen dituzte han-hemengo eguneroko lan-harremanetan. Eta enpresari mesede baina ezin dio egin <b>hizkuntza bakoitza non, noiz, nola eta zertarako erabili</b> erabaki eta finkatzeak. Zeregin horretan laguntzen du hizkuntza-gestioak, ELEGUNEk.</p>	<p>Enpresa indartzen duena. Enpresarentzat irabaziak sortzen dituena. Hizkuntza-gestio egoki batek asko egin dezake enpresaren interes eta estrategiaren alde.</p>	<p>Enpresak berak eduki behar du beti gidaritza. Hartutako erabakiak enpresarentzat egokienak eta eraginkorrenak izan daitezzen beti. Eta hizkuntza-gestioak enpresaren ildo estrategikoak indartzen eta hobeto aprobetxatzen egin dezan lan. Enpresak adituen laguntza behar du, ordea, hizkuntza-gestioan asmatzeko. Enpresarentzat lan egingo duen zentro tekniko bat, ELEGUNE, hain zuzen ere.</p>
<p><i>El presente y el futuro de la empresa es plurilingüe. Y la gestión lingüística ayuda a determinar dónde, cuándo, cómo y para qué utilizar cada una de las lenguas de la empresa para que estas funcionen a su favor.</i></p>	<p><i>La mejor gestión lingüística es la que fortalece la empresa y la que aporta beneficios a la actividad de la misma.</i></p>	<p><i>El liderazgo de la gestión lingüística corresponde siempre a la empresa. Para asegurar que las medidas adoptadas sean las óptimas para la empresa, y que la gestión lingüística trabaje en beneficio de su estrategia empresarial. La empresa, sin embargo, necesita ayuda de expertos en gestión lingüística.</i></p>

Iturri zaharretik etengabe berritzen den ura.  
bezalaxe dira azpeitiarrak euskararentzat.



Los azpeitiarras son para el euskera como el agua  
de la vieja fuente que se renueva continuamente.



**ELEGUNE**  
enpresen  
hizkuntza-gestiorako  
gune teknikoa  
centro de optimización  
de la gestión lingüística  
en las empresas

## Enpresaren hizkuntza

- Zeintzuk dira zure enpresaren hizkuntzak?
- Zeintzuk dira zure langileen hizkuntzak? Eta bezeroenak?
- Zein hizkuntzak egiten du azpeitiar zure enpresa?
- Zeinek izan behar du Euskal Herriko enpresa baten berezko hizkuntza?

Hizkuntza-gestioak enpresaren berezko hizkuntzak zeintzuk diren identifikatu, eta haietako bakoitza non, noiz, nola eta zertarako erabili erabakitzen laguntzen du, enpresa indartzeko.

*La gestión lingüística identifica las lenguas que habla la empresa y ayudar a decidir dónde, cuándo, cómo y para qué utilizar cada una de ellas para fortalecer la empresa.*

## Komunikazioa hobetzen

Komunikazioaren kalitatea hobetzen du nabarmen hizkuntza-gestio egoki batek.

Enpresako pertsonen arteko komunikazioa naturalagoa eta ahaltsuagoa bihurtzen da, eta komunikazio beteagoak hobekuntzak ekartzen ditu enpresaren prozesuetan eta emaitzetan.

*Una buena gestión lingüística mejora la calidad de la comunicación en la empresa, y ello incide directamente en la mejora de los procesos y los resultados de la misma.*

Euskara, euskara, euskara... EUSKARA



## Enpresa gizartearekin bat

- Kokatuta dagoen gizartearen eragina izaten du beti enpresak.
- Gizartearen baloreak igartzen dira enpresaren gestio-sisteman: ezkontzea, seme-alabak izatea, ikasketak egitea, natura zaintzea...
- Gizartearen kultur-adierazpenek ere eragin zuzena dute enpresan: Sansebastianak, Inauteriak, Saninazioak, Santotomasak...
- Gizartearen sinismenak ere aintzakotzat hartzen ditu enpresak: Aste Santua, Gabonak, ahaideen heriotza...
- Era berean, **hizkuntza-gestio egoki batek gizartearen txertatzen du enpresa**, "bertakotu" eta "etxekotu" egiten du.
- Enpresak gizartearen hizkuntza enpresaren berezko gestio-hizkuntza bihurtzen duenean, enpresa txertatuago ikusten da gizarte horretan.

*Horregatik, hizkuntza-gestioa giltzarria da enpresa gizartera hurbiltzeko.*

*La gestión lingüística de la empresa es un factor decisivo para convertir la empresa en parte integrante de su entorno social más inmediato. Para acercar la empresa a la sociedad.*



## Enpresa gizartearen norabidean

Gizarteak hartutako norabidean egin behar du aurrera enpresa batek, etorkizuna ziurtatzeko.

Gizarteak duen hizkuntz-

jokabidearekin bat egin behar du enpresak bere burua indartzeko eta ez arriskuan jartzeko. Eta hizkuntza-gestio egoki batek enpresa

gizartearen norabidean jartzen laguntzen du.

Ondorengo urteetan Euskal Herriaren historiako gazteriarik

euskaldunena eta prestatuena iritsiko da lan mundura. Azpeitiko gazteria oso-osorik % 100 euskalduna da eta lanean euskaraz

aritzeko prestatuta dago. Eta hori aprobetxatzeko gauza izango diren enpresak indartuta aterako dira.

*La empresa necesita ir en la misma dirección que la sociedad en la que está integrada. Y la gestión lingüística de la empresa debe in en consonancia con la opción lingüística que realiza su entorno social.*

*En el futuro más inmediato va a acceder al ámbito laboral y empresarial la juventud mejor preparada y funcionalmente más euskaldun de toda la historia de Euskadi. El ámbito empresarial se verá reforzado si aprovecha dicha realidad lingüística.*

Euskara, euskara, euskara...  
EUSKARA



Euskara, euskara, euskara...  
**EUSKARA**



## Hizkuntza-gestioa Azpeitiko enpresentzat

1.

Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren babesarekin, eskaintza bat egiten dizu Azpeitiko Udalak: ELEGUNE.

2.

Zentro tekniko bat da ELEGUNE, zure enpresarentzat hizkuntza-gestiorik egokiena pentsatu, proposatu eta gauatzeko lan egingo duena.

3.

Zure enpresako hizkuntzen erabileraren nondik norakoak erabakitzeko eta zehazteko, hizkuntza-gestiorako Jarraibide Liburua egingo du ELEGUNEk zure gidaritzapean.

4.

Zerbitzu profesionala eta integrala eskaintzen du ELEGUNEK, eta hizkuntza-gestioan autonomia lortzeko prestakuntza eta laguntza ere eskainiko dio zure enpresari.

5.

Azpeitiko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Euskaltzaindiaren eta Azpeitiko hainbat enpresaren **elkarlan eta babesarekin garatutako egitasmoa.**

*Con el aval del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia, el Ayuntamiento de Azpeitia ofrece a las empresas del municipio: ELEGUNE.*

*Un centro técnico formado por expertos en la implantación y la gestión lingüística en empresas, que ofrecerán un servicio profesional e integral para tu empresa.*